

Miña, samiña ta otoitza

Anai edo arrebaren bat billoxik badago edo zer-janik eztaukola, eta zuetarik batenbatek esango baleyto: "Zoaze bakean eta berotu ta ase aal zaitzelaz" baiño ez baleutse bere gorputzeko bear-izan ori beteteko ezer emongo, orduan, zer aprobetxatuko leuskioee zuen berbok?
(Sant. 2, 15-16)

X URTEA N.º 115
Dep. Legal SS. 1092-1959
Suplemento de la Hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
GARAGARRILLA (7) 1964

Jauna, ezin izan dot loa artu, eta jagi egin naz, ba. Gustora errezateko-edo. Kanpoan, gaba da, aizea alaluka. Eta euria. Erriko argiak, illuntasuna zuluturik, bada-gozela batenbatzuk diñoste.

Min emoten deuste argi orrek, Jauna. Eurrek ixartu nabe. Eta erriko sufrimentuak dakarstez orain burura.

Ba-dakit kuartu baten batabesteen kontra lo dagozan 13 pertsonen arnasa ustela bat-egiten dala.

Ba-dakit ama batek maia ta aulkiak goitik eskeita imifii bear dauazala, oeak jarri-teko lekuri egon daitean.

Ba-dakit arratoiak datozela, gabaz, ogikuzkurak iruntzi, ta umeri aginkadak emotera.

Ba-dakit senarra jagi bear dala bere semetxoan oe bustiaren gainean ulea zabal-duteko.

Ba-dakit zelan ama batek zutunik igaro bear dauana gau osoa, oe batentzako lekua baiño eztagolako; eta ume biak gaixorik euki.

Ba-dakit moskorti batek gomittuak bere alboan lo datzan semeari botaten deutsozala gainera.

Ba-dakit mutiko batek iges egin dauala, aspertuta dagoalako.

Ba-dakit gizonak erriertan dabizela andreekaiatik. Iru matrimonio bizi dira sabai baten-eta.

Ba-dakit neska batek bere anaiarengandik ume bat izan dauala, 20 ta 16 urte daukezalako ta oe bat baiño eztagolako.

Ba-dakit andreak ezetza damotsola gauero

gizonari, beste seme batentzako lekuri ez-paitago. Ta ezetz, ba.

Ba-dakit ume bat il-zorian dagoala —goxo—, bere beste 4 anaitxoekaz an goian batuteko prest.



IRAKURRI: gaztea, seguru zagoz gaur za-reana izango zarala gero be?

Guk, gazteok, geure burua zaintzeko nai-ko gareala-ta, beste ifloren kontzeju paltarik eztaukagula —berbaz esaten ezpadogu beintzat— egitez sarri defendiduten dogu.

Geure barru-barruan sentiduten doguna-gaz zintzoak izango bagifia, beste zeozerren bat esango geunkela esango neuke olan da be. Geure eritxi au, bizitzan zear, sarri kan-biatuko dogu. Umeak gifiala, geure gurasoen beste ekianik munduan ezegoala pentsetan genduan; euren esanak legeak ziran, euren ejneploa on-bide.

Amar urte ingurura eldu gifianean, orain-diño gurasoak euren pedestaletik jausi ba-rik baegozan be, ez egozan len beste seguru. Geure moduan zeozer pentsetan asi gifian ordurako ta, euren esanetan, gugaz ondo



Gazteok

zer?

konpontzen etzan zeozerren bat topetan gen-duan.

Amalau urteetara eldu gifianean, geure guraso ta zaindariatari ia tirano ta diktado-re batzuk baiño besterik ezkenduan ikusten. Geure egite guztiak txarto artuak izaten bai-ziran. Geure barruan pasetan ziran geuzak zer zirean ez eben konprendiduten. Geure ondorengo personak ezkenduzan konprendiduten!

Ogetabat urtegaz, libreak be ba-gifiala-ta, zeozer zala geure burua-ta, geure guraso ta maixuak, aintxifietako moduko persona-ren moduan pentsetan ebela esaten genduan. "Gaurko egunotan ezgara orduan lakoak! Gaur, gaurko moduan bizi bear da, ez aintxifietako moduan! Geure gurasoak-eta, arek ezekien ezer! Gaurko egunetakoak balira izan!"

Ogetasei urtegaz: "Beti bardin gure gurasoak. ¡Maite gaitue, bai! baiña oso atzeratuak diranez, beti prudentzi ta pridentzia bear dogula-ta dabiltz. Aren moduan biziko bagifia, ezer egin barik il-ordua elduko litzaku. ¡Alan da be, onak dira izan!"

Ogetamabost urteak asko. pentsau eragiten dabe-ta, gaitiera, experientzi apurren bat be lortzeko denporea izan be egonda-ta, gizonaren eritxia zeozerren bat kanbiatzen asten da:

Gure modukoak etziran geure gurasoak, atzeratutxoagoak zirean; baiña guk eztaukagun zeozerren bat ba-euken arek! Geuk be arek euken burua bagendu! Gauzak ze ondo pentsetan ebezan gero! Ia dana asartu egiten eben!"

Berrogetabost urte asko dira. Gizonak bi-



Au guztia ba-dakit, Jauna,
eta askoz geiago be bai,
onelakoak eundaka ezagututen dotaz,
eta, len be, ba-nekiazan, ain trankil
izera artean sartu orduko.

Ezpanekiz, gurago neuke, Jauna,
obe kontu ta ipuiñak balira,
amesak dirala pentsa gure neuke,
batenbatak andaluz bat nazela
esango baleust sikeran!

Jente orrek eurek daukela pasetan
iakenaren errua, zorionbakoak
badira eurek irabazita dala.
Au nonork probatu eidala
gura neuke, Jauna.

Trankildu egin gura neuke, Jauna.
Baiña ezin. Beranduei da. Larrei
ikusi dot, larrei entzun,
kontuak ondoei atara dotaz,
numeroak egin dotaz,
eta orain zifra orrek betirako kendu
deuste nire errubako zoriona. Betirako.

MICHEL QUOIST-ERI artu ta aldaturik.

zitzan zear difikultade askoren kontra ekin
bearra izan dau. Bizitza zer dan ondo daki.
Barriz, jakintza guzti orregaz mutil biurtu-
ko balitz, beste modu batean konponduko
litzake bizitzan zear. Orduan, ba, zer diñoan
ba-daki:

“Geure gurasoak eztakit nundik euren
ikaragarrizko jakituria atara eben! Alako
personarik orraitio! Ze sakonak ziran euren
konsejoak, ze ondo neurtuak euren eginkin-
zunak! Nor izan eitean arek lakoa, nor ain
buruduna, nor bizitzako gauzetan ain jakin-
tsua?”

Lepoa makurtzen ia asita daukan irurogei
urtekoak, bere gogoan ondo markauta dau-
kazan gauzak gozo xamur bategaz gogora-
tuz, diño: “Ai! Nire ondoan ze aundiak izan
ziran nire gurasoak! Arek lakoak izatearren
edozer egingo neuke gaur! Sikieran euren
esaneri kasu egin baneutsen be... a! Orduan
ze erreza izango zan neure bizitza! Arek era-
kutsi eustezan gauzak neuk neure semeeri
erakusteko kapaz izan banintzan be...; bai-
ña, arek beste zelan izan ni? Gaur orduan
lez mutil banintz, ondo diferente izango
nintzake!”

LITURJI BARRIA,

NOIZ?

TA

ZER-

GAI-

TIK?

“Vatikano II-gn. Konzilioak ekarri deuskun lenengo erreforma liturjikoan izan dala eztago esan bearrik. Ezagunak dira danontzako oneri buruz emondako normak, Liturjiaren Kostituziñoan eta Aita Santuaren “Motu Proprio”-an arkitzen diranak.

Eta —jakiña!— leku guztietan dabiltz arau oneri aplikaziñoa emon gurean. Egia esan, erbestekoak aurreratu egin jakuz: Belgika-n, Alemania-n, Suiza-n, Frantzia-n, t. a. Baiña, gure artean be asi gara lenengo pausoak emoten.

Ba-dagoz aplikaziño au astiroegi doala pentsaten dabena. Eta —bear bada— arrazoi apur bat be ba-dauke. Baiña, gelditasun au azaldu leiteke askotan korapillo ugari (izkuntz diferente, t. a.) erabaki bear dirala konturatzen bagara.

Danon gogoia da, bai, normak ainbat arifien praktika-
ra eroatea. Alan da be, ain garrantzi aundikoak diralarik, patxadaz egin bear dira, patxada baita biar on baten kondiziñoa.

Aztu ezin daikegun gauza da Kostituziñoak batzuk uste dabena baiño esan-gure sakonagoa daukoala, beren egin-bearra —liturjiaren erreforma— kontuan artuten badogu.

“Liturjiak batez be —diñosku Kostituzioak— Jainko Santuaren kultua dalarik, Erakutsi aundia dauko kristau erriarentzat be. Izan be, liturjian Jainkoa mintzaten jaku kristau erriari; Kristo-k Barri-ona emonaz jarraituten dau. Eta erri osoak kantu ta otoitz bidez erantzuten deutso Jainkoari”. Finalidade au —sakramentuzko misterioetan obeto parte artu ta Jesukristori zintzoago agurtutekoa— da erreforma onek lortu bear dabena. Geuri be ederto jator-ku Frantzi-ko Obispoak ango kristiñaueri egindako itauna: “Anaiak, ondo etorriko dira liturjiako aldaketak; baiña,

zuen aldetik, M eta egiteakaz

Lasterrago bai, gizarte bai. Eleizak be derra eta, gaurko gubadente. Baiñ kumentuak dau ez dira naiko lortuten ifioiz tola, ta otoitza askorik, Kostit gaz joten ezpa

Badagoz — nobedadeak er tituziñoaren esp kuz, gaurko giza da bakar-bakar

Egia esan, dagoz lenengo asko ez tala bai egin daiteken Baiña, asmo on teko gauz eta barriari bateam

Oraindik ge ren egiak —Ko dira.

Eztago duta frutu ugari el

KULTURA OLATUA

Gu, gizonok, berez olakoak gara-ta, ia beti gagoz bizitzako gauzari manda illuna topaten. Sarritan entzuten dana da, —ta neuk be ba-ñiñoan beiñola ze—, arraintzalea eskola bearrean dagola. Oraindiño amalau urteko mutiltxoa dalarik ixten dau eskolea —ainbeste kalba egindako eskolea!— ta gero, agur! Antxe akabaten dira arraintzalearen jakituri guztiak.

Gaur arte, bear bada, beste bizimodu batzuk izan doguz. Gaur arte, bizitzak ekarren patu txarra edo ona gureganatuten genduan. Bizitzaren ariak ez eukan beste zerik auxe baiño: txikitari, ume denporan, eskola-

ratu ta zeozer ikasi, ta emendik aurrera, biar eta biar, bizitza guztian gauzak olan zirala-koan.

Gaur barriz, beste aize klase batzuk jo dabez gure teillatuak; lengoak aldaturik dira. Gaur legorreko biargiñek, eurak be, eskolak daukeez. Biarrari probetxu geiago atarateko eskolak. Denporeak eztaki geldineua zer dan. Eztau utsik. Egun batetik bestera arpegi barria erakusten deuskuez erriek. Aldaketarik aundiaren denporatan gagoz. Gaur, gura dauanak, edonok, ba-dau betarik moduzko kultura baten jabe izateko. Arraintzaleen alde, sentidu onetan, emon diran indarrak, ainbeste fruturen iturri biziak eginda dagoz. Baiña, indar onek be, orain,

A I ?

...zenezan, zuen gogo Meza otoi
...ete da?"


...anduago, erreforma etorriko jaku,
...nizi-moldeak berriztu diran antzera,
...gokitu ta moldatu bear dauz bereak-
...beartasuneri erantzuna emon gura
...naiko. "Vaticano II"-garrengo do-
...alidate ta kriterioak guganatuteko
...prioak". Onelako aldakuntza ez da
...ko erreformakaz. Ebanjelioa, epis-
...kaz irakurrita be, ez dogu lortuten
...skatuten deuskun espiritu sakona-
...liturjiko gure arazoetan.

...egongo dira— arau-berri zaleak,
...dakarrela-ta. Au ezta, barriz, Kos-
...nizioak norma barriak badakarz-
...teari erantzuna emotearren izango
...barri zaleen gogoak betetzearren.

...a, asko falta jaku, ia-ia dana. Asita
...orak. Apaiz-talde batzuk oraindik
...sursilloetan prolema onen gain zer
...Bidea txalogarria deritxot benetan.
...ditu egin bear dira. Aunditu gizar-
...panganaiño eldu arte, danok ikuspen
...degiogun.

...teizismo, teoloji ta kristiñautasuna-
...ñiño— beste era batera azaldu bear

...nizioak biar asko emoten dago ta
...elauz.



...apurtxu bat zartuten ba-oiazen-da, metodu
...barri batzueri eldu bear.

...Arraintzalea kultura miñak eragin bear
...du. Miñik eta egarririk asko dagoz egon
...be, gizonaren azalaren azpian, su garra aut-
...dan dan moduan; baiña, or jauk ba!, aut-
...ori ezta putz txiki bategaz kendutekoa. Ur-
...te askotan eta gizaldi luzeetan baturiko
...autsaren aurrean gagoz.

...Eziñezkoa arraintzalea kultura bideetatik
...eroan araztea, bere borondatea orixe ezpada.
...Ori denporea ta astia merkeegi saltzea litza-
...te. Lenago, gogo sartu borondatearen so-
...lan. Gero, jorratu ta jagon. Erramu barik
...ztago ibilterik, edo gasoil barik eztabil mo-
...orrik. Egi biribilla auxe. Biribillgia, antza,

artez ikusteko.

Kultura naiean borondatea biztutea da bia-
rrik gogorrena. Au lortu ezkeru, bestea
berez etorriko litzake edo, beifrik-bein, errez.

Zeifien zeregiña ete da au? Gobernua da-
roen gizonena; baiña oneek allegaten ez di-
ranean, emen gagoz gu, gizonok, borondate
onekuok, batok besteari lagunduteko prest.
Batzutan, dirua baiño bearrago izan oi da
kontsejua.

Erriaren ona ta danen ondasuna, geure
zorianaren iturburu.

Noiz izango ete gara gizonok gizonontza-
ko?

ITXASO MANDAN

LENENGO AMODIOAK

Neskalaguntza denporan gauza xelebriak pasaten dira. Xelebriak bai, baiña askotan miñ emoten dabenak.

Ara, begiratu egizu pareja ori kale erdian zear, kaltzarpetik ondo lotuta biak. Orreentzako beste mundurik eztago ordu orreetan. Eurak dira erriko biztanleak; beste gizonak pinturak besterik ez dira. Gizon batek deitzen badeutse —etxeokak, lagunak edo beste edozeiñek— molesti itzel bat da, denporea galtzea da, sakrifizio bat orrei erantzutea. Nobioaren eritxia munduko eritxirik onena jako nobiari. Eta nobioaren gauza guztiak gustaten asi jakoz: futbola, politikako eta moraleko ideak, nobelak, baita nobioaren esanera eta abotsa be. Munduko idearik onenak nobioarenak dira. Bata bestearentzat bizi da. Dana doa ondo.

DESILUZIÑOAK

Domeka batean, nobia bere amumaren etxera doa zorionak emotera urteak beteten ditu-ta. Arratsalde eder bat pasatu dau. Bere nobioarengain ia ezta akordau be egin. Gabeko ordu luzetan konturatu da ezta bakarrik bere nobioa zoriona bere biotzera ekarri leikioanik. Eta esaten dau bere kolkorako: zergaitik ez naz etorriko etxe onera urrengo domeketan be? Ez naz libre akaso Zergaitik egon bear dot domeka guztietan jübola ikusten nire nobioarekin? Etxat batpe gustaten. Ta gaiñera, nire nobioaren anaia pizka bat moskortia da; aita be ezta diru-emon zale. Karlos-egaz alkartu baiño leen, Madrillera joateko esperantza neukan, eta beragaitik ez naz joan. Ai, oba ezagutu ezipanau!

Ofiziñatik urtekeran alkartu da bere nobioarekin. Lenengo, beti lako karziak. Apur batera, nobioak zeozer erreparau dau. Eztago beste egunetan lez. Ezetzka eta baietzka asi dira. Gerroago eta geiägo berotzen dira. Azkenean, nobiak karraxi batekin "ezetz" esaten dau. Emoten deutso atzealdeä eta... agur.

KONZEKUENTZIAK

Ara or amodio baten azkena. Zergaitik.

1) *Prudentzirik eztagolako lenengo amodioetan. Gaiñezka mañtutzen da lenengo denporetan. Eta zer pasaten da? Tarterako esnari pasaten jakona txapa bero baten gaiñean: gaiñezka bera jausten da eta, kontuz ezpadabil iñor, tartera guztia utsituten da.*

2) *Amodioa SUFRIDUA ezta lako. Amodio eztsua artzen da bakarrik. Amodio klase ontan pentzaten da bakarrik. Eta bizitzako garratzasun bat badator, potx egin bear derrigor. Amodio kuruzetu bat bear da. Ezin leiteke pentsa bizitza guztuan tuan eztsuzko amodioarekin bizi leitekenik.*

Neska laguntzan asi baiño leen, amodio sakrifikatuan oituta egon bear da, neskalaguntz eta ezkontz luze bat nai bada.

Amo- dio- aren az- ken arna- sak

Aitaren etxea



Nire aitaren etxea
defendituko dut. (1)

Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut (2)

nire aitaren etxea.

Galduko ditut

aziendak,

soloak,

pinudiak;

galduko ditut

korrituak,

errentak,

interesak,

baña nire aitaren etxea defendituko dut.

Harmak kenduko dizkidate,

eta eskuarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

eskuak ebakiko dizkidate, (3)

eta besoarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

besorik gabe,

sorbaldik gabe,

bularrik gabe,

utziko naute,

eta arimarekin defendituko dut

nire aitaren etxea.

Ni hilen naiz, (4)

nire arima galduko da,

nire askazia galduko da,

baina nire aitaren etxeak

iraunen du (5)

zutik.

(1) dut = dot

(2) eginen dut = egingo dot

(3) kenduko dizkidate = kenduko deustez

(4) hilen naiz = ilko naz

(5) iraunen du = iraungo dau

Emen ala an?

Egun batean

eztu inork

ezer erosiko;

egun batean

eza merkatuetan

sagarrik

salduko.

Egun batean

guztiok

izanen gara (1)

zoriontsuak.

(G. Arestien "Harri eta Herri"-tik)

(1) izanen gara = izango gara

ALKAR- BERBA- KETAREN ARAZOA!

Pio XII-ak bein idatzi eban "erri-eritxia gizartearen arnasa zala". Orrek esan guña dau gizarte batean erri-eritxia falta danean edo galerazota dagoanean, gizarte ortan gauzak eztoazala ain zuzen. Beste orrenbeste esan bear da alkar-berbaketari buruz, gizarte danak dauke alkar-berbaketaren premiña-ta. Gizarte batean, edozeiñean, alkar-izketa falta danean, derrigorrez autortu bear dogu gizarte orren barruan gauzak eztabiltzala argi eta garbi: edo agintariak buru-gogorregiak dirala, edo esku-gogorregiak, edo gizarte ortako gizon-emakumeak azi barik dagoazala, gizarte-anditasuna lortu barik.

Zertarako bear da alkar-izketa? Egia lortzeko. Mundu onetan, iñor-be ezta egi jau-bea edo, obeto esateko, iñok-be eztauko egi osoa. Danok daukogu geure egi zatitxoa, baiña iñok-bere ez osoa. Eta ortarako da alkar-berbaketa bear-bearrezkoa: egi zatitxo orreek batuta, egi osoa egin daitean.

Ba-dagoz, barriz, zoritxarrez, beste era batera pentsaten dabenak, euren egiteetan beintzat, esanetan ezpada. Egia eurak bakarrik daukela uste dabenak, bes-teen eritxiak aintzakotzat artzen ez dakienak, iñori entzun gura ez deutoenak. Begira zer jazo daitekean orreetariko batzuk Estaduko agintza nagusiagaz egiten badira! Eztira diktadore makalak izango! Gizarte batean, beraz, erri-eritxia ta alkar-izketa dana galerazoten danean, begiak itxita autortu daiteke gizarte ortako agintariak diktadoreak dirala.

Baiña, ezta ori bakarrik; ba-dago oindifño ori baiño txarrago: alkar-izketa bear dan moduan egiten ez jakitea. Orduan bai esan daikegula gizarte ori zietz ustelduta dagoala! Erri bateko giza-semeak alkar-berbaketa bat egiten ez dakienean, orduan sortzen da ortxe anarkia itzelgarriena. Burura yatorikon guztia esateko eskubidea daukola uste izan oi dau bakotxak, eta burugabekeri ta umekeri negargarriak baiño eztira entzuten eta irakurten edonun. Nasta-borraste ortan eztago egia lortzerik, ezta ezelan-be! Orduan, egia argitu bearrean, alkar-berbaketak dana itzelduten dau. Beraz, benetako alkar-izketa eukiteko, gauza bi bear dira lenengo: bata, buru argi ta biotz zintzo gizon-emakumeetan, eta, bigarrena, neurri bat norbere eritxietan.

Zeiniek ipiñiko dau neurri ori? Estaduak, ez. Estadua ezta iñor esateko zer dan egia ta zer ezta. Neurri ori aldatzen ez dan Egian idoro bear da, au da, giza-legean eta Jaungoikoaren berbatan. Eta auxe da Estaduaren arazoa: egi ori zabaldu ta ezagutu eragin, gizon-emakume bakotxak jakin daian zer esan eta zelan pentsa. Ezta ezertxo-be irebazten gizasemeak ixillik egoten beartuta! Baiña bakotxak be alegin zintzoak egin bear ditu egia lortzeko ta egi orren araberean beti jokaturteko.

